

## OLAGIBEL ETA URA

Arkupeen eta Plaza Berriaren egilea, halaber, figura gakoa izan zen osasungaitzasunaren eta uholdeen arazoak konpontzeko eta saneamendu eta hornidura sarea diseinatzeko.



Justo Antonio Olagibel, aurten **bere heriotzaren 200. urtemuga** beteko delarik, arkitekto gasteiztar ezaguna izan zen. Arkupeak eta Espainia Plaza bezain eraikin berezien egilea izateaz gain, jeinu gasteiztarrak hiriarentzako garrantzi handiko obretan ere esku hartu zuen, hala nola bertako kale eta plazen harriztatzean eta estolderian.

Askotan arduratu zen hiriko urez, hoditeriaz, iturriez... besteak beste, **ur galerak, osasungaitzatsuna, uholdeak edo iturri eta urasken arteko komunikazioa konpontzeko.**

Era berean, **Zapardiel ibaia garbitzeko ardura** izan zuen harresiarren pareko zatian, Santa Klara auzoaren eta Santo Domingo komentuen artean (gaur egun Diputazio kalea eta Jesusen Zerbitzarien kalea). Eta behin garbituta, babeserako petrila jarri zuen ibaiaren luzeran.

1796an Gasteizko Udalean txosten bat aurkeztu zuen, hiriko estolderiarako obraren trazatuak, formak eta dimentsioak, eta erabili behariko lirakekeen materialak xehetasun handiz zehaztuz. Hoditeria kale nagusien azpian egin zen, Hedegile kalea, Errementari kalea, Aiztogile kalea, Santa Maria Atea... Horrek eta ondoren egin zen kaleen harriztatzeak, orduan txikia zen Gasteiz hiriaren bizitza kalitatean hobekuntza garrantzitsua ekarri zuen.

Lanak hain izan ziren kalitatekoak, ez baitzuten konponketa garrantzitsurik behar izan pasa den XX. mendeko erdialdera arte.




Gogoan eduki!

### URAREN KUDEAKETAREN PRAKTIKA ONEN MULTZOA

#### 2 EMARIEN DOIKUNTZA TXORROTETAN

**Ur kontsumoa txorrotan emariaren arabera da neurri handi batean. Horiek oso altuak direnean, behar den baino ur gehiago kontsumitzen da, ur kontsumoko ohiturak egokiak izanik ere.**

✓ Ikuskatu txorrotan emaria gehiegizkoa ote den. Litro bateko ontzi bat betetzeko behar diren segundokoak kronometratzearekin nahikoa da, txorrota ahal bezain beste irekita. 60 segundotan beteko lirakekeen litro kopurua emango digu hiruko erregela soil batek, eta hori izango da minutuko litroen emariaren balioa.



#### Erreferentziak emari eraginkor zenbait:

- **Konketa edo bidet txorrota:** 6 litro baino gutxiago minutuko
- **Arraska:** 8 litro baino gutxiago minutuko
- **Dutxako txorrota:** 10 litro baino gutxiago minutuko

✓ Murriztu txorrotan emaria perlizatzaileak edo ur emarien mugatzaileak instalatuz; zuk zeuk egin dezakezu oso diru gutxirekin. Ohiko filtro edo aireztatzaileak ordezkatzeko dituzte perlizatzaileak, eta mugagailuak dutxako ihinztagailuaren eta hodiaren artean instalatzen dira. Beste aukera bat dutxako buru osoa modelo eraginkor batekin ordezkatzea da.

✓ Sukaldeko edo komuneko erreformaren bati ekitekotan bazaude, aintzat hartu txorrota aurreztaileak edo kontsumo baxukoak instalatzeko aukera. Ikuskatu zerbitzu emariak eta erabilitako teknologia mota. Gaur egun monoaginte eta txorrota termostatiko askok kontsumoa %50 ere murriztea ahalbidetzen dute, eta bereziki ur beroaren xahuketa.

✓ Erosi aurretik informa zaitetz eta uraren sektoreko profesionalen gomendioak aintzat hartu. Gogoan izan, estetika ez da kontu garrantzitsu bakarra.

**Ura aurrezteko teknologiek ez dute konforta murrizten, ezta zerbitzuaren kalitatea baldintzatzen ere; besterik gabe, eraginkorragoak dira.**

✓ Etxebizitza batzuetan kontsumo puntuko presioa altua da eta ur emari handiagoak eragiten du. Zure kasua bada, probatu konketako pasoko giltza pixka bat ixten, eta emaria murriztuko da.

IRADOKIZUNEN BAT EGIN NAHI DIGUZU, EDO IRITZIA EMAN?

Posta elektronikoz egin dezakezu. Hauxe da helbidea: [info@amvisa-futura.org](mailto:info@amvisa-futura.org)

